

**EZTULA
TOS**

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da diogun diagnostikoa: **EZTULA**.

ZER DA?

Eztula arnasbidearen berezko erreflexua da (sudurra, eztarria, laringea, trakea eta bronkioak), narritadura sortzen duten substantzia arrotzak edo jarioak kanporatzeko. Oso sintoma gogaikarria da, lo egitea eta elikatzea eragotzi ahal dituena; gainera, egun edo asteetan iraun dezake. Normalean, ez daude lotuta sintoma honen iraupena eta bizitasuna eta sorrarazi duen gaixotasunaren larritasuna.

ZEIN DA ARRAZOA?

Eztula agertzen da infekzio batek, alergiak, keak, gorputz arrotzek eta abarrek honako hauetan narritadura sortzen dutenean: eztarria, laringea (arnas aparatuko alde horretan ahots-kordak daude), trakea eta bronkioak. Infekzio-prozesu batek eragina da eztul "biguna" (flemekin, sukarrarekin). Eztul lehorra narritadura-prozesuek, asmak, faringitisak... sorrarazi ohi dute. Laringitisa dagoenean, ohikoa da txakurreztula.

ZER EGIN BEHAR DUZU?

Eztula sorrarazten duen arrazoia tratatu behar da, ahal bada.

Tratamenduaren oinarria, gehienetan, likidoak eta sukarraren aurkako antitermikoak ematea izaten da.

Bakteriek eragindako infekzioa denean baino ez da jaso behar tratamendu antibiotikoa.

Kasu batzuetan, eztula luzaroen edukiz gero eta umeari ohiko bizimodua egitea eragotzen badio, tratamendua aginduko zaio, eztularen aurkako medikamentuen bidez.

ZERI JARRI BEHAR ZAIO ARRETA?

Eztulaz gainera, honelakorik ote dagoen zaindu behar da:

- Arnasa hartzeko zailtasuna.
- Toraxeko mina.
- Eztul iraunkorra, gorakoak, jateko zailtasuna.
- Eztul-aldiak, batez ere ume txikien kasuan, itolarria sortzen badiote (aurpegi ubeldua).
- Egoera orokorraren alterazioa, goibeltasuna, logura, sukar altua...

Horrelako zerbait nabaritzen baduzu edo edozergatik kezkatuta bazaude, osasun-zentrorra jo behar duzu edo larrialdietako zerbitzu batera, zure seme-alabari beste azterketa bat egin diezaioten.

Su hijo ha sido diagnosticado de **TOS** por los síntomas que presenta en este momento.

¿QUE ES?

La tos es un reflejo propio de la vía aérea (nariz, garganta, laringe, traquea y bronquios), encaminado a expulsar sustancias extrañas o secreciones que lo irritan. Es un síntoma muy molesto que puede dificultar el sueño e interferir con la alimentación, permaneciendo, además, durante días e incluso semanas. Ni la duración e intensidad de este síntoma tiene relación, en general, con la gravedad de la enfermedad que lo provoca.

¿CUAL ES LA CAUSA?

La tos se produce por irritación de la garganta, laringe (zona del aparato respiratorio donde están las cuerdas vocales), tráquea y bronquios, provocada por una infección, alergia, humos, cuerpos extraños etc.

Una tos "blanda", con flemas, fiebre, suele deberse a un proceso infeccioso, mientras que una tos seca suele deberse a procesos irritativos, asma, faringitis... La tos "de perro" es típica de Laringitis.

¿QUE DEBE HACER?

El tratamiento de la tos consiste en tratar la causa que la produce, si se puede.

La mayoría de las veces el tratamiento va a ser líquidos y antitérmicos para la fiebre.

Sólo recibirá tratamiento antibiótico si la causa de la tos es una infección bacteriana.

Sólo en algunos casos en que la tos es persistente e impide al niño realizar su vida habitual se indicará el tratamiento con medicamentos antitusivos.

¿QUE DEBE VIGILAR?

Si el niño presenta además de la tos:

- Dificultad respiratoria
- Dolor torácico
- Tos persistente, vómitos, dificultad para alimentarse
- Episodios de tos, sobre todo en el niño pequeño, que provoquen sofocación (cara amoratada)
- Alteración del estado general con decaimiento, tendencia al sueño, fiebre elevada ...

Si nota algo de esto o cualquier cosa que le preocupe deberá acudir a su Centro de Salud o a un Servicio de Urgencias ya que su hijo necesitará una nueva valoración.